

ZERBITZU EGINKIZUNAK, LEKUALDATZE, PROFILAK.

1.- Ikuskaritza, **EIBZ eta ILZ**ko lanpostuetarako zerbitzu eginkizun deialdia aurki argitaratuko da.

2.- **Proiektuak eta programak** aurrera eramateko zerbitzu eginkizunen deialdia ere berehala argitaratuko da, eta izena emateko 10 egun egonen dira. Zerbitzu eginkizun hauek aurrera eramateko **sistema tranpatia** dela salatu zuen STEILASEk eta gainontzeko sindikatuek mahai sektorialean honako arrazoiengatik:

- Proiektu edo programak aurrera eramateko zerbitzu eginkizunen erabilera gehiegizkoa da.
- Programa bera aurrera eramateko eskakizunak oso ezberdinak dira ikastetxearen arabera, kasu askotan behar baino zehaztuagoak (adibidez, SKOLAE koordinatzeko ikastetxe batean PT eta beste batean Gorputz Heziketako espezialitatea). Honek agerian uzten du zerbitzu eginkizun hauek ez direla modu garbian esleitzen baizik eta alde zurretik irakasle jakin batekin adostuta daudela.
- Hezkuntzako arduradun batek zerbitzu eginkizun hauek plantilla estabilizatzeko bide bezala defendatu zuen batere disimulatu gabe, eta hori ez da onargarria inondik inora.
- Deialdi honek izkutuko eta bakarrik batzuentzat den lekualdatze lehiaketa bezala funtzionatzen du. Honek dakarren ondorioetako bat behin behineko funtzionarioen zenbait zerrendak blokeatuta jarraitzea da.
- Zerbitzu eginkizun hauen prozesua seriotasun gutxirekin garatzen da orokorrean.

3.- Langileak egonkortzeko **lekualdatze lehiaketan lanpostu gehiago ateratzea** eskatu diogu Hezkuntza Departamentuari, hau baita ikastetxeetan jarraikortasuna bermatzeko dugun bide garbiena eta bidezkoena.

4.- **Prestakuntzarako zerbitzu bereziak**: deialdia ikasturte honetan zehar ateratzeko asmoa adierazi dute. Berrikuntza bezala izangaiek espezialitate batera baino gehiagora aurkezteko aukera izanen dute.

5.- **Profilak**: Online profila (PL), Arriskuen Prebentzio Profila (PR) eta Proiektuen Profila (PY) indargabetuko dira.

STEILASEk salatu du profil hauen desagertzea inongo negoziatorik gabe eta berandu komunikatu dela.

6.- Unibertsitate tituloa duten **Lanbide Heziketako irakasle Teknikoen maila aldaketa** (B mailatik A mailara): oraindik Hezkuntza Ministerioak ez du zehaztu nola eta noiz eginen den.